

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Balio proposamena sortu eta eskaintzeko, banaketa kanalak, bezeroekiko harremanak eta diru-sarrerak garatzeko gure negozio ereduak hainbat funtsezko baliabide behar ditu. Funtsezko baliabideak fisikoak, finantzarioak, intelektualak edo giza-baliabideak izan daitezke.

Hasteko baliabide fisikoetan zentratuko gara. Gure kasuan, instalakuntzei dagokienez, baserri bat, parking bat, baratza, ikuilua eta zelaia ditugu. Bestalde, hainbat makina eta tresna ditugu gure baserrian: hozkailu erraldoiak, mikrondasa, labea, frijigailua, bitrozeramika...

Gure janaria bertan jaten bada, plateretan zerbitzatuko da baina aldiz, kanpoan jateko eramaten bada, paperezko poltsak emango dira baina telazko poltsak ere eskainiko ditugu 2 eurotara eta itzultzean dirua itzuliko zaie.

Janaria internet bidez, propagandan edo webgunean agertzen den telefonora deituz eskatu daiteke baina bertara joan behar da bila, gure jatetxean ez dugu etxeetara eramateko aukera.

Gure enpresan oso garrantzitsuak dira langileek dituzten gaitasun, prestakuntza eta ezagutzak. Hau da, gure enpresa jatetxe bat denez, sukaldariak ezagutza maila egokia izatea garrantzitsua da, hau da, sukaldatzeko teknikak, errezeten ezagutza, alergien inguruko ezagutza, adibidez, zeliakoek jan ditzaketen produktuak. Bestalde zerbitzariak jendearekiko jarrera egokia izan behar dute, hau da, bezeroen aurrean jatorra izatea, irrifar bat izatea eta edozein arazoren aurrean laguntzeko prest egotea. Gainera, gauzak zerbitzatzeko abilezia eta janarien inguruko ezagutza eduki behar dute. Modu berean, komunikazioaz eta erreserbez arduratzen diren langileek komunikazio bideen ezagutza (Sare sozialak...).

Finantza baliabideei dagokienez, gure enpresa sortzeko dirua gure aurrezkietatik hartzeaz gain, mailegu bat eskatu genuen. Gainera, diru-laguntzak ere izan ditugu.

Gure aurrezkien zati handi bat aitona Manuelen heriotzaren ondoren, berak utzitako oinordetzatik lortu dugu. Gainontzekoa aurreko urteetan egindako lanetatik lortutakoa da, hau da, gu baino gazteagoak diren ikasleei ingelerako, matematikako, dantzako...-eko klaseak ematen. Zerbitzari lanetan ere ibili izan ginen eta bertatik hartu genuen gure enpresaren ideia. Izan ere, McDonalds eta Burger King-en lana egin ondoren, bertan saltzen genituen kalitate txarreko janariak gure gizartea sortzen zuen kalteaz lekuko izan ginen, hara joaten ziren gehienak elikadura arazoak zituztelako. Orduan, gure artean hortaz hausnarketa luze bat egin ondoren, guk ere, modu berean, gure zerbitzu eta produktuak eskaintzea erabaki genuen, baina ez beraiek saltzen zituzten kalitate txarreko elikagaiak, gure baserriko produktu naturalak baizik.

Maileguei dagokienez berriz, 5.000 euro-eko mailegu bat eskatuko diogu BBVA-ri urte batean itzuliko duguna %2,3 -ko interesekin, hau da, 164,8 euroko interesekin. Denera 5.164,8 euro itzuli beharko dizkiogu bankuari.

Lehen esan bezala, diru laguntzak ere izango ditugu, 2019ko urriaren 5ean gutun bat idatzi genien Lasarte-Oriako udaletxeko kideei. Bertan diru-laguntza emateko eskaera egin genien, enpresa honek herriaren irudiari mesede egingo ziola esanez. Izan ere, gure janari azkarreko jatetxeak kalitatezko elikagaiak dituenek, eta hori ez denez ohikoa gure inguruan, jendea erakarriko du. Honela, bertako denda, taberna, garraio...hau da, herriko negozio txiki zein handiei lagunduko lieke.

Gutuna idatzi eta hilabetera, hau da 2019ko azaroan, gurekin kontaktuan jarri ziren beste gutun baten bidez. Bertan, aurrez aurreko bilera bat egin nahi zutela adierazi ziguten. Bilera hori, udaletxean bertan egin genuen 2019ko abenduan, eta denbora luzez hitz egin ondoren, gure negozioaren ideia gustuko izan zuten eta diru-laguntza ematea erabaki zuten.

2019ko abenduaren bukaeran, eman ziguten 10.000 euroko diru-laguntza eta hau izan zen gure enpresaren ideia aurrera ateratzeko gehien lagundu ziguna.

Guztira, enpresa aurrera ateratzeko 26.050 euro genituen, gure aurrezki, diru-laguntza eta maileguarekin, nahiz eta lehen esan bezala urtebetean bankuari mailegua itzuli behar izan.